

---

# Bizikidetza: zertaz hitz egiten ari gara?

**Mateos, Txoli**

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
txoli.mateos@gmail.com

---



---

Aniztasuna eta kohesioa alde banatan ipinita, bien artean kokatzen da bizikidetza. Batzuetan, bizikidetzaz hitz egiten da kontuan hartu gabe kontzeptuaren erabilerak berak adierazten duela gatazka bat dagoela oinarrian. Bigarren akatsa testuinguruari dagokio. Bizikidetza eraikitzeke, euskal gizartearen barne diferentziak ulertu behar dira. Ulertu eta onartu, ondorio guztiekin. Eta hirugarrena diferentzia horien kudeaketari dagokio. Zer egin behar dugu aniztasuna dagoela onartu eta gero?

**Giltza-hitzak:** Bizikidetza. Kultura aniztasuna. Kohesioa. Gatazka. Demokrazia.

## Sarrera: kontzeptuaren polisemia

Atal honen izenburua *Euskal gizartea: aniztasuna eta kohesioa* da. Kontzeptu bi horiek irudikatuko bagenitu errealitate sozialaren mutur banatan, haien arteko zubi lana egingo lukeena *bizikidetza* litzateke. Hala, bizikidetza ezinbestekoa da anitza den gizarte batean kohesioa gauzatu ahal dadin, geroago azalduko dugunez, bizikidetzaz hitz egin beharra dagoelako diferentzien arteko elkarbizitza lortu gura denean.

Ez da kontzeptu arrotza, inondik inora. Izan ere, ohiko bihurtu da urteotan *bizikidetza* kontzeptua agertzea euskal gizartearen politika eta kultura mailako diskurtsoetan. Hala ere, agerikoa da bizikidetza aipatzen delarik, esangura desberdinak eransten zaizkiola hitzari. Kontzeptu polisemiko baten aurrean gaude, halamoduzko *mantra* bilakatu dena. Inor ez da ausartzen gaur egungo sistema demokratikoetan esatera bizikidetzaz ez dagoela arduratuta; berdina zaiola, alegia, herritarren arteko harremanak gaiztotzen diren edo ez. Baina elkarbizitzaren sakon-sakoneko esangurak eta horien ondorioak saihestu egiten dira maiz. Edo, maizago ere, nork bere esangura ematen dio kontzeptuari. Hona hemen, Katalunian, Diadaren harira, egin ziren manifestazioari buruz adierazpen bi, adibide modura:

“Arazorik okerrena katalanen arteko bizikidetzaz arazoa da. (...) Bizikidetzaz da beharrezkoa, ez independentzia”. (Pedro Sánchez, *Berria*, 2018/09/12)

Eta erantzuna:

“Non ikusi du gaur bizikidetzaz arazo bat Sánchezek? Nik ehunka mila herritar elkarbizitzan ikusi dut”. (Carles Puigdemont, *Berria*, 2018/09/12)

Zein bizikidetzaz motaz ari da Pedro Sánchez hori esatean? Espainiar edo kataluniar sentitzen diren herritarren arteko bizikidetzaz. Baina elkarbizitzaz hori gauza dadin ezinbesteko baldintza da nazionalismo katalanak amore ematea bere erreibindikazioetan.

Eta zein da Puigdemontek aurkezten duen bizikidetzaz eredua? Nazionalista katalanen artekoa, soil-soila; albo batera utzita bestelako identitate nazionalak. Berez, ezin zitekeen hori hartu elkarbizitzaren arazoari erantzun gisa. Edo, bestela eta hobeto esanda, Puigdemontek ez omen du ikusten Catalunyako gizartearen bizikidetzaz arazorik dagoenik. Gauzak horrela, arma jaurtigailu modura erabiltzen da bizikidetzaz, batez ere, arlo politikoan, halako moldez non nahikoa izaten baita jarrera bat deskalifikatzeko bizikidetzaz kaltetzen duela esatea.

Beste batzuetan, ordea, bizikidetzaz kontzeptua bera deskalifikatuta geratzen da gatazka izkutatze helburuarekin erabiltzen omen baita. Gutxiengo egoeran daudenak, batez ere, ez dira fidatzen bizikidetzaz kontzeptuarekin, euskaltzaleak, esate baterako, ondoko adibide honetan bezala:

“Anestesiaturik gaude. Errespetu, tolerantzia eta bizikidetzaren amua sartu ziguten, aspaldi, gure erakunde autonomikoek. Hotel batek errusieraz edo turkieraz jar dezake informazioa, baina euskaraz ez, eta gure agintariak ez dute ezer egingo eskatuko. Ez behartu, mintu egingo dira eta”. (J.M. Pastor, *Berria*, 2018/10/06)

Argitu dezagun, aurrera joan baino lehenago, gure tesia: Bizikidetzaz harreman zuzenean dago diferentziaren onarpen demokratikoarekin. Eta onarpen hori ez dakargu geneetan: ikasi egiten da eta hezkuntza sistema leku ezin egokiagoa da zeregin hori betetzeko. Hala ere, ez da eskolaren bizkarrean jarri behar tamaina horretako erantzukizun osoa. Gizarteak, eta arlo politikoak batez ere, badu zeresanik. Eduki beharko luke.

## 1. Bizikidetzaz hitz egin beharra dago gatazka dagoelako

Demokrazia liberaleko gizarteetan herritarren arteko kohesioaren bilaketa eta instituzio demokratikoei leialtasuna eragitea lehentasunezko helburu bihurtu da. Baina, jakina, kohesioa eta leialtasuna kontsentsuan eta eztabaida sozial arrazionalen oinarrituta ulertzen dira (Gutmann, 2008). Hori horrela, gizartearen arloren bateko kohesio faltak ezinegon sorrarazten du, kolokan jartzen baita, neurri batez behintzat, agintearen zilegatasuna eta sistema demokratikoa bera. Eta, hain zuzen ere, demokrazia liberalaren ahuleziak gainditzeko gero eta zabaldugoa dago herritarren partaidetzaz deliberatiboa bultzatu behar dela, demokrazia bera indartze aldera (ik. Barber, 2004).

Edozein kasutan, herritarren arteko kohesioa eta bizikidetzaz ukatu ezineko *desideratum* bihurtu dira. Hala ere, joera handia egoten da kohesio faltaren zergatiak alboratzeko; orduan, bizikidetzaz kontzeptuak *aingeruzko izaera* abstraktua hartzen du. Hau da, *ahaztu* egiten da *zergatik* hitz egiten ari garen bizikidetzaz. Zehatz-mehatz, noren arteko bizikidetzaz lortu behar da? Ezin daiteke jakin. Ez du subjektu jakinik, ezta jatorri argirik ere. Elkarbizitzaz kontzeptuak hegan egiten du gure buruen gainean, inoiz lurreratu barik. Etorkinei buruz ari gara? Biktimei buruz ari gara? Eskola segregazioari buruz ari gara? Zaborren bilketari buruz ari gara?

Euskal gizartearen testuinguruan aniztasunaz, kohesioaz eta elkarbizitzaz hitz egiten badugu, arlo bat baino gehiago izan daiteke hizpide, gorago aipatu ditudan adibideetan ikus daitekeenez. Terminoa zedarritu beharko dugu, ezinbestean.

Duda barik, migrazio berriak eragindako kultura, hizkuntza eta erlijio aniztasunak bizikidetzaz arazo jakin batzuk ekar litzake eta, ondorioz, elkarbizitzarako beste estilo bateko proposamenak ere eztabaidatu beharko lirarteke beren-beregi. Ezinezkoa da, ordea, arlo horri ekitea aurkezpen honetan, nahiz eta aipamenen bat ere egingo dugun. Dena dela, gaiari buruz Hego Euskal Herrian ageri dira proposamen bat baino gehiago arlo sozialean (*Euskal Herria 11 kolore* izeneko ekimena, adibidez) eta akademikoan (ik. Albite, 2008; Ruiz Vieytes, 2011).

Hemen, ordea, *bertako* nazio (eta kultura) identitate aniztasunak sor lezakeen gatazkaz eta horien arteko elkarbizitzaz bideratzeko aukera posiblez hitz egin nahi dut. Are gehiago zedarritu daiteke gatazka hori, zeren eta nahiko frogatutzat eman baitezakegu nazio proiektu desberdinen arteko lehia arlo

politikoan, batez ere, kokatu behar dela eta ez, horrela, herritarren artean (Zabalo et al., 2016). Hari horretatik tiraka, esan genezake nazio proiektu politiko desberdinen arteko gatazka dagoela bizikidetzaz terminoaren erabilaren oinarrian testu honetan.

## 2. Bizikidetzaz (eta gatazkaz) hitz egin behar da aniztasuna dagoelako

Aipatutako nazio identitate aniztasuna, agerikoa izanagatik ere, oso gutxitan da esplizituki aipatua diskurtso politikoan. Hego Euskal Herrian, zehazki, dauden nazio proiektu politiko nagusi biek hitz egiten dute euskal gizarte osoaren ordezkari balira bezala, besteari leporatuz, horrela, *gizartearen zatiketa* eragitea. Eta, orduan, testuingururik gabeko bizikidetzaz hitz egiten da. Hemen ahaztu egiten da elkarbizitzaz hitz egitera behartuta gaudela gure arteko diferentziak daudelako; berdinak ez garelako, alegia. Esan bezala, nazio leialtasun desberdinak ditugu, kultura eta hizkuntza desberdinak, ... Akats handia da hori, duda barik, zeren eta bizikidetzaz eraikitzeari ekin ahal izateko, euskal gizartearen barne diferentziak ulertu eta onartu behar dira. Horixe da kontzeptuak dakarren sakon-sakoneko esangura.

Baina zer da diferentziak onartzea? Bitxia bada ere, aniztasuna kontzeptu goraipatua da maila diskurtsiboan behin eta berriz. Gure artean, aniztasunak dakarren aberastasunari gorazarre egiten zaio maila kulturalan eta politikoan, batez ere ezkerreko ikusmoldeetan; zuzentasun politikoak behartuta, batzuetan, irudi lezake. Horrekin batera, ordea, etengabe indartzen ari dira jarrera xenofoboak ultraeskuindar politikoaren eskutik mendebaldeko herrialdeetan, gugandik oso-oso hurbil.

Edozein modutan ere, aniztasunari gorazarre horrekin batera zeharkatu ezinezko zenbait marra gorri ere ageri dira. Marra gorri horietako bat izan liteke ondoko hau: Edozein identitate edo proiektu politiko zein kultural mehatxatuta sentitzen ez den bitartean, zilegi dira diferentzia kulturalak, politikoak, erlijiozkoak, ...

Michel Walzerrek, ildo horretan, argi eta garbi adierazten du *Tratado sobre la tolerancia* liburu sonatuan: diferentziekin tolerante izan behar dugu, onartu egin behar ditugu (sarritan ondo ulertu gabe ere)... Nazio-Estatua kolokan jartzen ez duten bitartean (Walzer, 1998). Hortik aurrera, akabo tolerantzia. Beste batzuek giza eskubideen urraketa ipintzen dute zeharkatu ezinezko marra gisa. Will Kymlickak, esate baterako, baiesten du talde identitate

aniztasuna babestu behar dela talde barruko kideen giza eskubideak –askatasuna, esaterako– kaltetezen ez diren bitartean. Askatasun hauetako bat liteke, adibidez, taldea bera utzi ahal izatea (Kymlicka, 1996). Esan gabe doa zernolako interpretazio ugartasuna aurki dezakegun giza eskubideen arloan...

Baina ez al du ematen apur bat inozo gaur egun aniztasunean sinesteak? Zenbaiten ustez, aniztasuna *per se* balioestea aberrazio bat da, gizakiaren berezko joera delako harrerako gizartearen integratzea ahalik eta ondoen, eta, horrek, ezinbestean, jatorrizko ezaugarri kulturalak bigarren maila batean uztea dakar. Beste batzuk sutuki adierazten dute kontua ez dela jatorrizko kulturak babestea ezta kanpotik etorritakoa asimilatzea ere, ezpada denon arteko kultura berri bat sortzea. Hitz egin dezagun kulturartekotasunaz eta ez kultura aniztasunaz, esaten dute azken horiek... Era askotako iritziak aurki ditzakegu honen inguruan eta, nola ez, bibliografia oparoa, hemen aipatzeak luzeegi joko lukeena.

Inguru-maru honetan, nik gauza bat zehaztu nahi nuke, aurrera jarraitu baino lehenago: herri bat, gizarte bat, komunitate bat, ez da hobe edo txarragoa, moralaren aldetik begiratuta, homogenea edo heterogena izateagatik. Hau da, naturan aniztasuna galdu ezinezko balio bat den arren, gizarte gaitan aniztasuna ezin da jo balio moralizat, zentzu estuan ulertuta. Hau da, aniztasuna ez da gizarteak lortu beharko lukeen egoera bat, *demokrazia* edota *justizia* liritekeen moduan. Oinarrizko arazoa da nolako jarrera hartu behar den gizartearen *de facto* dagoen aniztasunari begira. Eta jarreraren bat hartu behar da, besteak beste, Estatuak neutralak izan daitezkeelako gai batzuen aurrean (laikoak izan daitezke, adibidez, eta erlijiozko kontuak eremu pribatura mugatu), baina ohikoena da kultura eta hizkuntza batean edo batzuetan oinarrituta egotea eta ez dira izaten neutralak horien aurrean. Kontuan hartzeko ezaugarria da, hots, estatuen neutraltasunik eza zenbait gairen aurrean.

## 3. Aniztasunaren onarpena ez da nahikoa; kudeaketan datza gako

Diodan berriro, gatazka eta barne diferentziak daudela ulertuta –edo ulertu gabe ere– eta onartuta, diferentzia horien *kudeaketari* ekin behar zaio. Bestela esanda: nolako neurriak hartu beharko liriteke diferentzia horiei begira? Mantentzeko baliabiderik eman behar zaie identitate desberdina adierazten duten taldeei? Ahaztu egin behar ditugu diferentzia horiek

berdintasunaren izenean? Herritarren arteko homogeneousutasuna ala heterogeneousutasuna bultzatu behar dugu?

Tentazio handia egoten da, hain zuzen ere gatazka saihesteko, diferentziak ahazteko eta ustezko berdintasuna bultzatzeko, errepublikanismoak eta kosmopolitismoak, adibidez, herritartasun kontzeptuaren bidez egiten dutena. Diferentziak daudela onartzen du, baina *tabula rasa* batetik abiatu nahi du. Denok gara herritarrak, denok gara berdinak. Gure identitateak –erlijiosoa, nazionala, kulturala...– arlo pribatuari dagozkio. Gizatiarekin dugu zor nagusia. Egitura politikoari gutxieneko leialtasuna da gure obligazioa eta hortik eratorriko dira eskubideak herritar legez (ik., besteak beste, Nussbaum, 1999).

Luze eta sakon hitz egiteko gaia da, inondik inora, identitatea –edozein delarik ere– kontu pribatua delako hori. Lehenik eta behin, identitatea, oro har, talde bati lotua sortzen delako. Ez daukagu nazio, genero, kultura, erlijio, hizkuntza... Identitate indibidualik. Ez da existitzen horrelakorik. Identitate indibidualik ez badago, guztiz kontu pribatu izan daiteke identitatea? Bigarrenik, talde identitateak eztabaida sozialetan parterik hartuko ez dutela esatearren, ez dira magiaz desagertzen. Existitzen badira, eragina dute taldeen bizitzan. Are gehiago, hainbat pentsalarik modu argian baieztatu dute kidez kulturalak eta identitate nazionalak, adibidez, bizimodu esanguratsua eragiten dutela, eta partaidetza eta ardura publikoa areagotzen dituztela (Miller 1996; Macyntire, 1993). Bestela pentsatzea eta horren arabera jardutea *ostrukaren* politika egitea da, nire iritziz. Hau da, taldeen –eta beraz, taldekideen– eskubideen kontra joatea eta taldeok gutxiestea. Normalean, identitate –kultural, politiko, nazional, linguistikoa...– hegemonikoaren mesedean. Estatuak, oro har, ez direlako neutralak, arestian esan bezala. Ezinezkoa da, nire ustez, bestela izatea. Baina jardun demokratikoak baditu mila aurpegi. Badaude moduak, benetako demokrazian sinesten badugu, ahots guztiei leku bat egiteko. Egunero berrasmatu behar du bere burua demokraziak eztabaida sozialaren bitartez (Guttman, 2008).

Nazionalismoak, bestalde, diferentziatik abiatzen dira. Diferentziak kanpora begira, baina, duda barik, homogeneousutasuna barrura begira. Nazionalismoak nazio kohesionatua nahi du. Nazionalismo guztiek. Horrela, gure artera etorrita, antzeko arazoa islatzen da gizartearen baitan dauden nazio identitate desberdinei lekuri ematen ez zaion neurrian. Azaldu dezagun astiroago, errotik ez badugu aldatzen

hau ez delako izango posible bizikidetzaz sendo eta demokratikorik euskal gizartearen.

Espainiar nazionalismoak herritar abertzaleen sentimenduak edo jardunak *deabrutu* egiten dituen antidemokratikotzat eta berekoikeriaren edo asmo txarren ondorioztat joz, bizikidetzaren kontra lan egiten du. Erabakitzeko eskubidea, adibidez, *gizartearen benetako beharizanetatik* urruti dagoela esaten duenean, gutxietsi (eta gaitzetsi) egiten ditu herritar andana batek dituen sentimenduak, eta, are gehiago, joko demokratikotik at uzten du gizartearen zati bat. Bitxia da hau, jakina, espainiar nazionalismoa urte hamarkadetan egon delako euskal nazionalismoari leporatzen gizartearen zatiketa eragiten duela bere aldarrikapenen bidez. Beraz, argi eta garbi esanda, Hego Euskal Herriko espainiar nazionalismoak zor bat dauka gizartearen aniztasunarekin eta demokraziarekin. Eta hori dena egiten du bere burua nazionalistatzat jo gabe, *nazionalismo hutsalaren bidez*, Michael Billigek maisuki azaltzen duen moduan (Billig, 2014).

Baina euskal nazionalismoak ere arazoak ditu gure gizartearen aniztasuna onartzeko orduan. Izan ere, Ramón Máizen arabera, estaturik gabeko nazionalismoek tentazioa izan ohi dute Nazio-Estatuaren logika bera birproduzitzera, alegia: homogeneousutasunaren bila doazela, arazoak aurkitzea barne aniztasunari men egiteko eta zalantzak agertzea bertako gutxiengoaren eskubide kulturalak, adibidez, errespetatzeko orduan (Maíz, 2003). Nire iritziz, baina, arazo askoz ere korapilatsuagoa dauka euskal nazionalismoak: euskal gizartea eta euskal nazioa pareko egiten direnean, albo batera uzten du nazio leialtasun desberdineko herritarrak bizi garelako Euskal Herrian eta denok izan beharko genukeela geure identitatea adierazteko aukera.

Orokorrean, Hego Euskal Herriari dagokionez, esan daiteke nazionalismo mota biek diskurtso nahiko liberala dutela herritarren identitate kulturala lantzeko aukerei buruz: biek gorai patzen dute gizakien borondatea, inposiziorik eza eta abarrekoak. Biak, oro har esanda ere, prest agertzen dira katoliko ez den beste erlijioei leku bat egitearekin gizartearen; meskiten eraikuntzaren aferan, esate baterako edota eskoletako jantokietako menuen egokitzapenaren bidez (Ikus, adibidez, Mateos et al., 2016). Non egiten dute huts, ordea? Euskal Herrian dagoen nazio identitatearen aniztasuna aitortzean eta kudeatzean.

Aukeren artean, balizko euskal estatu nazioanitzaz formulatu da inoiz zeharka (ik. Sarrionaindia, 2015: 82-83) edo aukera

posible modura (ik. Zabalo/Mateos, 2016). Ez da bat ere kontu erraza, esan gabe doa. Hori horrela, nire ustez, gaur egun euskal gizarteak duen erronka handienetako bat da nazio (eta kultura) identitate kolektiboaren errespetutik abiatuta, horiek adierazteko, jarduteko eta eragiteko bideen nolakoaz gogoeta egin beharra.

#### 4. Hezkuntza sistema, bizikidetzarako (eta, beraz, kohesiorako) tresna garrantzitsua

Eskolak berebiziko protagonismoa hartu beharko luke arlo honetan, duda barik. Herritar guztiak gogoeta moral sakon batean murgiltzeko baliabideak (eta motibazioa) dituen bakarra baita, komunikabideek eta familiak, arrazoi desberdinak direla medio, ez dutena. Hezkuntza sistema, Unibertsitatez besteko mailetan batez ere, gaur egun, dugun instituzio aurrerakoiena dela esatera ausartuko nintzateke. Eta, gutxi balitz, aniztasun politikoa ez hainbeste, baina aniztasun kulturala, linguistikoa, erlijiosoa... gero eta nabariagoa da gure eskoletan, halako moldez non izugarritzko erronka baita gaur egun irakasle izatea. Ziur nago testu hau irakurtzen badu irakasleren batek pentsatuko duela: eskolak ere konpondu behar al du maila politikoa konpontzeko gai ez direna? Arazoz gainezka baitago momentu honetan Euskal Herriko hezkuntza sistema.

Hala ere, uste dut berezkoa zaiola hezkuntza sistemari, maila guztietan, ikasleak trebatzea herritartasun demokratikoaren oinarriak barneratu ditzaten. Eskola etengabe ari da arau moralak helarazten, hezkuntza zibikoaren zutabeak ipintzen, eztabaida, gogoeta eta jardura arrazionalak pizten. Zein beste instituziotan lan egiten da horrela? Familiak, hedabideek, gizarte erakundeek... arrazoi desberdinegatik, ez dute metodikoki lantzen euskal haurren herritartasuna. Hego Euskal Herriari dagokionez, zehazki, hezkuntza sistemak modu esplizituan egiten zuen Herritartasunerako Hezkuntzaren bidez, baina, denok dakigunez, irakasgai hori desagertu egin zen curriculumetik LOMCeren erruz. Eta, bitxia bada ere, kexu gutxi entzun da Hego Euskal Herrian gai horren inguruan. Ezarri zenean ere, PSOE agintean zegoela, Espainian egon zen sektore eskuindarren eta ezkerrekoen arteko zalapartak ez zuen ia ohiartzunik izan euskal gizartean. Inoiz ez zaio garrantzirik eman Herritartasunerako Hezkuntza modu egoki eta sakonean planteatzeari, ez administrazio autonomikoaren aldetik, ezta eragile sozial, sindikal eta politikoen aldetik ere.

Askotan eta alde ugartik aztertu da Herritartasunerako Hezkuntza edo Hezkuntza Zibikoa nolakoa eta zertarako egon behar den eskola demokratikoetako curriculumean. Oso luze joko luke hemen laburpen bat egiteak (ik., besteak beste, García Guitián, 2008). Zenbait ideia nagusi adierazi behar dira, ordea, ezinbestean:

- Herritartasun desberdinak egonda, ez da erraza –ez badago debate sozial sakonik horren inguruan– eskolak berak erabakitzea zernolako herritar eredu helarazi behar den aniztasunari eta kohesioari ekiteko, aldi berean (Mateos, 2013).
- Eskolak transmititu behar duena ez da ezagutza multzo soil bat printzipio politiko batzuen inguruan. Identitate zibiko bat egoteak berarekin dakar nolabaiteko identitate konpartitu bat egotea, historia moralizatzaile bat eta, aldi berean, pentsamendu kritikorako gaitasuna. Bestela esanda, herritartasunerako hezkuntzaren muina ez da ezagutza multzo bat gobernantzaren instituzioei buruz. Will Kymlickak dioen moduan, bada ere ohitura, identitate eta bertute multzo bat helaraztea (Kymlicka, 2002, 2003).
- Euskal Herriko hezkuntza sistemak, finean, identitate zibikoaz gain, hots, hemen bizi garen guztiok gara euskal herritar, euskal lurraldea, bere osotasunean, eta euskara maitatzen irakatsi beharko luke, argi izanda, ahatik, euskara denon ondarea dela, baina gaztelania eta frantsesa ere bai. Euskarak eta euskal kulturak jasaten duten egoeragatik laguntza berezia behar duten arren, berreskuratzeko hizkuntza politika sendoak, besteak beste; bertako kulturak ere direla aitortu beharko litzaieke gaztelaniaz eta frantsesez egindakoei. Eta gizarte osoan zabaldu hizkuntzen arteko bizikidetzari buruzko eztabaida.

Bizikidetzak, hartara, helburu argia du: inork ez dezala sentitu bere burua beste batek mehatxatuta. Ikusten denez, lehenik eta behin, eztabaida sozial sakona zabaldu beharko litzateke eskolaren –eta gizartearen– zeregin honen inguruan. Funtsean, demokrazia sakonagoa eta indartsuagoa izango litzateke horren guztiaren ondorio nagusia. Behin eta berriz esaten ari gara: Aniztasuna eta kohesioa, biak batera, ezin dira elkarren ondoan egon demokraziarik ez badute oinarrian. Benetako elkarbizitzaren sustraiak eskolan landu daitezke, abiapuntu modura, eta hortik etor liteke kontzeptuak une honetan islatzen duen hutsalkeria gainditzeko bidea. Baina argi izan behar dugu erantzukizun nagusia herritarren ordezkari diren eragile politikoek dutela.

---

## Bibliografia

---

- Albite, Pedro (2008). "Migrazioak, kultura-aniztasuna eta estaturik gabeko nazioak. Euskal Herriaren erronkak". *Jakin*, (165), 31-73.
- Barber, Benjamín (2004). *Democracia fuerte*. Granada: Almuzara.
- Billig, Michael (2014). *Nacionalismo banal*, Madrid: Capitán Swing.
- García Guitián, Elena (2008). "La educación cívica como educación política". In Del Aguila, Rafael; Escámez, Sebastián eta Tudela, José (arg.) *Democracia, Tolerancia y Educación Cívica*. Madrid: Servicio de Publicaciones de la Universidad Autónoma de Madrid.
- Gutmann, Amy (2008). *La identidad en democracia*. Madrid: Katz Editores.
- Kymlicka, Will (1996). *Ciudadanía multicultural*. Barcelona: Paidós.
- Kymlicka, Will (2002). "Dilemas de la educación cívica en las sociedades pluralistas". In *Educación, ética y ciudadanía. Actas del IV Congreso Internacional de Filosofía de la Educación*. Madrid: UNED ediciones.
- Kymlicka, Will (2003). "La educación para la ciudadanía". In *La política vernácula. Nacionalismo, multiculturalismo y ciudadanía*. Barcelona: Paidós.
- Macintyre, Alasdair (1993). "¿Es el patriotismo una virtud?" *Bitarte* (1): 67-85.
- Maíz, Ramón (2003). "Nacionalismo y multiculturalismo". In Arteta, Aurelio; García Guitián, Elena eta Maíz, Ramón (arg.). *Teoría política: poder, moral, democracia*. Madrid: Alianza Editorial.
- Mateos, Txoli (2013). "Herritartasun ereduak eskolak", In *Elkarrean artean: Euskal Estatuari bidea zabaltzen*, Bilbo: Ipar Hegoa.
- Mateos, Txoli; Zabalo, Julen; Larrinaga, Ane; Amurrio, Mila (2016). "Pluralidad política y diversidad cultural. Discursos sobre la educación para la ciudadanía en la sociedad vasca", *Papers. Revista de Sociología*, 101: 51-72.
- Miller, David (1997). *Sobre la nacionalidad. Autodeterminación y pluralismo cultural*. Barcelona: Paidós.
- Nussbaum, Martha C. (1999). *Los límites del patriotismo. Identidad, pertenencia y "ciudadanía mundial"*. Barcelona: Paidós.
- Ruiz Vieytes, Eduardo (2011). *Juntos pero no revueltos. Sobre diversidad cultural, democracia y derechos humanos*. Madrid: Maia.
- Sarrionandia, Joseba (2015). *Lapur banden etika ala politika*, Iruñea: Pamiela.
- Walzer, Michael (1998): *Tratado sobre la tolerancia*, Barcelona: Paidós.
- Zabalo, Julen, et al. (2016): *Euskal Estatu irudikatzen*, Bilbo: Ipar Hegoa/Parte Hartuz.
- Zabalo, Julen; Mateos, Txoli (2016). "National Identities in the Basque Country: Present and Future Trends". In Ibarra, Pedro; Kolas, Ashild (eds): *Basque Nationhood. Towards a Democratic Scenario*, Peter Lang, 281-307.